



KALE GARBIKETARI BURUZKO UDAL ORDENANTZA

AURKIBIDEA:

- I. IDAZPURUA**: ERABAKI OROKORRAK.
- II. IDAZPURUA**: HONDAKINEN SAILKAPENA.
- III. IDAZPURUA**: KALE-BIDEEN GARBIKETA.
- IV. IDAZPURUA**: KALEAN EGIN DAITEZEN JARDUERA PUBLIKOEN OSTEAN HERRIA GARBITZEA.
- V. IDAZPURUA**: KALE-BIDEAREN GARBIKETA LARRIALDIETAN.
- VI. IDAZPURUA**: HIRI HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEA.
- VII. IDAZPURUA**: HONDAKIN BEREZIAK JASOTZEA.
- VIII. IDAZPURUA**: ERITETXE ETA INDUSTRIETAKO HONDAKINAK, ETA HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUAK JASOTZEA.
- IX. IDAZPURUA**: BESTE HONDAKIN BATZUK.
- X. IDAZPURUA**: ZABORREN ARTEKO HONDAKIN MATERIALEN BILKETA SELEKTIBOIA ETA PROBETXAMENDUA.
- XI. IDAZPURUA**: HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENDU ETA DEUSEZ-TAPENA.
- XII. IDAZPURUA**: ARAU-HAUSTEAK ETA ISUN TAULA.

I. IDAZPURUA

ERABAKI OROKORRAK

I.1. Atalburua.- Xede eta helburuak:

1. Art.- Ordenantza honen xedea hauxe da: Amorebieta-Etxanoko Udalak, bere agintepideen muga barruan, udalerriko esparruan, ondoren adierazten diren egoera eta jarduerak araupetzeko lege-marko bat ezartea.

Herritarren erabilera normal orokorraren ondorioz zikindutako kale-bideak garbitzea; Udalaren jabetzapeko orubeak garbitzea; eta jabetza publiko edo pribatuko orubeak ikuskatzea eta haien ordezkotza burutzapena.

Pintadak egitea, eta kale-bidean kartelak eta pankartak jartzea.

Kalean manifestazio publikoak egingo direlako, Udalak izan dezan zikinkeria-egoera aurrikustea, eta Udalaren jabetzapeko ondasunak garbitzea, beren erabilera berezi eta pribatiboari dagokionez.

Etxeetako kontsumoak sortarazten dituen zabor eta hondakin solidoak jasotzea; baita beren izaeragatik aurrekoekiko asimilagarriak diren hondakin-material guztiak ere; eta, orokorrean, herri-eremuan sortzen diren hondakin solido eta zabor guztiak jasotzea, Legearen arabera lan hori Udalei dagokielako.

Lan txiki, eraiketa eta hondaketen ondorioz sortzen diren sastar, antzerako beste material batzuk eta lurrak pilatzea, garraiatzea eta isurtzea.

Hondakin-materialak eta jabeek bertan-behera utzitako materialak jasotzea eta garraiatzea, indarrean dagoen legeriaren arabera udalaren agintepekoak diren kasuetan.

Bere ardurapekoa den heinean, aurreko ataletan adierazitako hondakin-material guztiak tratatu, probetxatu, bildu eta deuseztatzeko diren sistema eta ekipamendu guztiak kudeatzea, kontrolatzea eta ikuskatzea.

I.2. Atalburua.- Ezarpen eremua:

2. Art.- 1.: Ordenantza honetan ematen diren aginduak Amorebieta-Etxanoko udalerrri osoan izango dute indarra.

2. Zabor, hondakin eta hiri-hondakin solidotzat hartuko dira egoera eta jarduera hauek sortutakoak: etxeek, merkatal-tegiek, zerbitzuek, aisialdikoek, osasunekoek, kale-bideen garbiketakoek, industria eta obrek; bertan-behera utzitako abere-gorpuak, altzariak, tresnak eta ibilgailuak; eta azaroaren 19ko 42/75 Legean ezarritako salbuespenak alde batera utziz, jasotzea, garraiatzea eta biltzea edo ezabatzea udalari dagozkion guztiak.

3. Art.- Aurreko ahapaldietan ez dira sartzen hondakin erradiaktiboak eta maiatzaren 15eko Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko 20/1986 Legeak eragindakoak.

4. Art.- Ordenantza honetan berariaz araututa ez dauden kasuetan, analogiaz aplikatuko dira arauak, ustezko horiek, beren izaeragatik, Ordenantzaren ezarpen eremuan sartzen badira.

I.3. Atalburua.- Udal agintepideen burutzapena.

5. Art.- Ingurugiroaren babesa, kale-bideen garbiketa, hondakinen jasotze eta garraiatzea, estolderia eta hondakin-uren tratamendu gaietaz, ondoren aipatuko direnek Udalei eman dizkieten agintepideen indarrez idatzi da ordenantza hau: Toki Jaurbidearen Oinarriak araupetzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 84. art.ak, Lege-Eraunde honetako 25. ari dagokionez; Hondakin eta Hondar Solidoen jasotze eta Tratamenduari buruzkoa den azaroaren 19ko 42/75 Legeak; eta Hondar Inerte eta Inartizatuen Kudeaketari buruzkoa den azaroaren 2ko Eusko Jaurlaritzaren 423/1994 Dekretuak emandako agintepideen indarrez, hain zuzen ere.

Ordenantza honetan erasota dauden udal eskumenak Alkatetzak, edo beronek izenda dezan organo ordezkioak, gauzatuko ditu. Sail horiek, beren eskumenek uzten dieten neurrian, beharrezko neurri zuzentzaile edo konponketa-neurriak har daitezela eska dezakete; inspekzioak egin daitezela agin dezakete; baita, Ordenantzan xedatutakoa ez delako bete, isunak ezarri ere, Ordenantzako XII. Atalburuan ezarritakoaren arabera.

I.4. Atalburua.- Eskubide eta obligazioak.

6. Art.- Amorebieta-Etxanon bizi diren guztiek ahaleginak egin behar dituzte, derrigorrez, Udala eta ingurua zikin daitezen ebitatzeko.

7. Art.- 1.: Udal-Erakundeak dirulaguntzak ezar ditzake Udala garbi mantentzen saiatzeko egin daitezen jarduerak sustatzeko.

2.: Udal-Erakundeak, norbanakoen ekimenez kale-garbiketa kolektiboaren gainean egin daitezen jarduerak bultzatuko ditu, eta sustatu egingo ditu Amorebietako bizitza-kalitatea hobetzera zuzenduriko jarduerak.

3.- Ordenantzaren arabera, herritarrei dagozkien garbiketa lanak Udal-Erakundeak egin ditzake haien orde. Eginez gero, beraiek ordaindu beharko dituzte kostuak, ezar dakizkiekeen isunen kaltetan gabe.

8. Art.- 1.: Herritar guztiek bete behar dute, derrigorrez, Ordenantza hau, baita Alkatetzak bere agintepideen arabera eman ditzan agindu osagarriak ere.

2.: Udal Agintaritzak Ordenantza hau bete dadila exijituko du; kalteren bat egin dezanari, eragindako kaltea konpontzeko eskatuko dio, ezar dakioken isunaren kaltetan gabe.

3.: Alkatetzak diruz zigortuko ditu Ordenantza hau hauts ditzaten ekintzak eta portaerak.

9. Art.- Udalak urtero ezarriko ditu legez ordaindu egin behar diren zerbitzuengatik arielak. Erabiltzaileek ezinbestean ordaindu beharko dituzte ariel horiek.

II. IDAZPURUA

HONDAKINEN SAILKAPENA

II. 1. Atalburua: Hondakinen katalogazioa:

10. Art.- Hiriko Hondakin eta Hondar Solidoen Jasotze eta Tratamenduari buruzko azaroaren 19ko 42/75 Legearen arabera, hondakin gisa sailkatuko dira ondorengo egoera eta jardueren ondorioz sortutakoak:

a) Etxeetan sorturikoak.

b) Merkatal tegi eta zerbitzuenak.

c) Jarduera sanitarioek, ospitale, klinika eta anbulategietan sorturikoak.

d) Kale-garbigeta, belargune, jolasleku eta aisialdirako guneek sorturikoak.

e) Bertan-behera utzitako abere hilak, altzariak, tresnak, ibilgailuak eta gauza iraungiak (hondakin bereziak).

f) Industriek, nekazaritza eta eraiketa jarduerak, eta etxeak konpontzeko obra txikiak sorturikoak. Ez dira sartzen ustiakuntza fasean sorturikoak, ez urbanizagarri sailkapena duen lurzoruan ekoiztu eta uzten direnak ere -ekainaren 26ko 1/92 Erregeren Dekretu Legea-.

g) Orokorrean, Toki Jaurpidearen Legean eta indarrean dauden gainontzeko erabakietan berariaz xedatutakoaren arabera, Udalak jaso, garraiatu eta pilatu behar dituen hondakin guztiak.

III. IDAZPURUA

KALE-BIDEEN GARBIKETA

III.1. Atalburua.- Herritarren erabilera amankomun orokorra.

11. Art.- Kale-bidetzat hartuko dira, eta beraz, horiek garbitu beharra Udalaren ardurapekotzat, herritar guztiek zuzenean eta amankomunean erabiltzeko diren Udal-jabetzapeko ondasunak (esate baterako plazak, kaleak, espaloiak...).

12. Art.- Partikularren jabetzapeko ondasunen kasuan, beren jabeen ardura izango da ondasunok garbitzea. Jabekidetasuna egonez gero, erantzunkizuna jabe guztiena izango da. Jabetzak hondar eta hondakin gabe mantendu beharko ditu, eta garbitasun, osasun, segurtasun

eta apaintasun aldetik behar bezalako egoeran. Horrek esan nahi du, oruberak sagurik gabe eta desinfektaturik eduki behar direla.

13. Art.- Udalak, zuzenean edo kontzesiodun enpresaren bitartez, elementu horien garbitasun-egoera kontrolatu eta ikuskatuko du. Udalak derrigortu egin dezake elementuon gaineko erantzunkizuna duena haiek garbitzera, horri buruz eman daitezen arauen arabera.

14. Art.- 1.: Debekatuta dago lurrera edonolako zaborrak botatzea.

2.: Hondakin solido txikiak, hala nola paperak, bildukinak eta antzerakoak, horrexetarako ezarritako papelontzietan utziko dira, debekatuta dagoelarik horietan bestelako hondakinik uztea.

3.: Hondakin haundiak edo, neurriz txikiak izan arren, ugariak direnak, hiri-hondakin solidoak jasotzeari buruz xedatuta dagoenari jarraiki jasoko dira, eta jasotze-zerbitzuekin eurekin ados jarrita. Hondakinen ezaugarriak direla eta, Udaleko Zerbitzuek ezin badituzte jaso eta eraman, partikularrek eurek eramango dituzte, Udaleko Zerbitzuak ematen dizkieten aginduen arabera.

15. Art.- Debekatuta dago ondoren zerrendatzen diren ekintzak kale-bidean burutzea:

1.: Kale-bidean edo paperontzi eta antzerako ontzietan utzitako edonolako hondakinak maneiatu eta bereizten ibiltzea.

2.: Kale bidera edozer botatzea, berdin delarik egoera solido, likido ala gasezkoan den.

3.: Zigarro, zigarrotxo, zigarrokin edo beste edozein material piztua botatzea papelontzietan. Itzalita bota beharko dira beti.

4.: Ibilgailuetatik kale-bidera edozelako hondarrak botatzea, berdin delarik ibilgailuak geldi dauden ala martxan doazen.

5.: Kale-bidean txu egitea eta norbere beharrianak egitea.

6.: Loreak atontzearen ondorioz sortutako hondarrak balkoi edo terrazetatik kalera botatzea. Hondar horiek etxeko gainontzeko zaborrekin batera botako dira.

7.: Ur zikina isurtzea kale-bidean edo lorategietan.

8.: Izozkailuen isuriak kale-bidean botatzea. Horiek finkako euri-uren saretik bideratuko dira.

9.: Abere-gorpuak, altzariak eta norbanakoen tresnak kale-bidean bertan-behera uztea. Horiek, beren-beregi antola daitezen zerbitzuek jasoko dituzte.

10.: Ingurunea zikindu edo degrada lezakeen edozelako ekintza burutzea, baita airea eta ura kutxa litzaketenak ere; eta, bereziki, abereak garbitzea eta ibilgailu edo makinak konpontzea eta ikuztea.

11.: Landareei ura botatzea, botaz gero kale-bidera ura isurtzen bada. Debeku hau goizeko 9etatik gaueko hamabiak arte dago indarrean. 24:00etatik 9:00ak arteko tarte horretan egin daiteke, auzoko eta oinezkoak ez molestatzeko beharrezko neurriak hartzen badira.

12.: Arropak eta alfonbrak astintzea balkoietatik kale-bide gainean, goizeko 9:00etatik gaueko hamabiak arte. 24:00etatik 9:00ak arteko bitarte horretan egin daiteke, auzoko eta oinezkoak ez molestatzeko beharrezko neurriak hartzen badira.

13.: Hiriko altzariak (paperontziak, edukinontziak, jarleku, iturri eta seinaleak, argiak, haur-jokoak, apaingarriak...) behar ez bezala erabiltzea, narriatzea edo apurtzea.

14.: Xiringa hipoderiko erabiliak, preserbatibo erabiliak edo antzekoak bertan behera uztea.

15.: Eta, orokorrean, kale-bidea zikindu eta bere garbitasuna eta dekoroa edo gizartearen osasunbidea kaltetzen duen beste edozein ekintza.

16. Art.- 1.: Udaleko zerbitzuek kale-bidean utzita dauden gauza edo material guztiak ken ditzakete aurretiaz abisatu gabe, eta Udal Agintaritzak horrelako kasuetarako aurrikusitako tokietara eraman ahal izango dituzte, bertan utzi edo deuseztatzeko.

2.: Material hauen uzte edo tratamendua, indarrean dauden legeen arabera egingo da beti.

3.: Materialok jaso, garraiatu eta zaintzeagatiko gastuak beren jabeek edo horien gaineko eskubidea dutenen kontura izango dira.

17. Art.- Bertan-behera uztetzat joko da hondakinak ingurunean zaindu gabe uztea.

III.2. Atalburua.- Obra eta beste jarduera batzuk:

18. Art.- Kale-bidea zikin ditzaten jarduerak burutzeko, ezinbestekoa da beharrezko neurriak har ditzatela jarduerak burutuko dituztenek, kale-bidea zikin dadin eragozteko; eragindako aldea egunero sistematikoki garbi ditzatela; eta jardueraren ondorioz sor daitezten hondakinak handik ken ditzatela, berdin delarik jarduerak non burutzen diren. Gainera, kasuan kasu aginduzkoak izan daitezten lizentzia edo baimenen kaltetan gabe egin beharko dute adierazitako hori.

Udal Agintaritzak dagozkion garbiketa-lanak egiteko eska diezaioke arduradunari.

19. Art.- 1.: Zikinkeria ebitatzeko, kale-bidea eragin ditzaketen lanak edo obrak egiten dituzten pertsonak babestu egin beharko dute hura, lurreraketen inguruan, lur eta obraren ondorioz geratzen diren elementuen inguruan, dagozkion elementuak jarriz, aipaturiko materialak lanek eragindako ingurutik kanpo zabaldu eta isuri ez daitezten.

2.: Lurreraketen ondorioz sor daitezten materialak zamatatu eta deskargatzeko, hodiak jarriko dira. Horiek, dagozkien baldintzak beteko dituzte, kale-bidea zikin ez dadin eta pertsona edo ondasunek kalterik jasan dezaten ebitatzeko.

3.: Obretako jarduera guztiak eta hornidura materialak, edukinontzi eta hondakinak, obra-gune barruan edo, dagokion baimena lortuta, kale-bidetik hartutako alde akotatuan utziko dira; erabat debekatuta dago kale-bideko gainontzekoa erabiltzea horrelakoetarako.

4.: Kalikatak egiterakoan, lehenagotik dagoen moduko zoladuraz estali beharko da; guztiz debekatuta dago lur, hare edo beste sustantzia zatigarriekin behin-behingo betetzea.

5.: Debekatuta dago kale-bidean, orube eta leku agerietan obra edo bestelako jarduera batzutatako hondakinak bertan-behera uztea, isurtzea edo gordetzea. Hondakin horiek beren arduradunek eraman beharko dituzte obretatik eta baimendun isurtegiatan utzi.

20. Art.- 1.: Eraiketa lanetan erabiltzen diren ibilgailuen gidaria da materialen zamalan eta garraioaren gaineko erantzunkizuna duena; berarekin batera, enpresari eta obren sustatzaileak ere dira erantzunkide, eta beharrezko izanez gero, garbiketari ekin beharko diotenak.

2.: Hautsezko materialak, kartoiak edo beste edozein material barreiarri daramaten ibilgailuen gidariek, lona, toldo edo antzerako elementuekin estali beharko dute karga, eta beharrezko

neurriak hartu beharko dituzte horiek garraiatzerakoan kale-bidera eror ez daitezen. Ez da baimenik ematen materialek kajako goiko ertzak gaindi ditzaten, ezta ibilgailuen karga-dukiera haundiagotzeko gehigarri osagarriak erabiltzeko ere.

3.: Hormigoia garaioa kale-bidetik hormigo-ibilgailuetan egin behar da derrigorrez. Ibilgailu horiek iste-dispositiboak eduki behar dituzte deskarga-ahoetan, hormigoia kale-bidera isuri dadin ebitatzeko.

Debekatuta dago hormigo-ibilgailuak kale-bidean garbitzea.

Debeku hori hautsiz gero, ibilgailuaren jabea eta gidaria izango dira erantzule, eta isuritako hormigoia eta zikindutako kale-bide zatia garbitu egin beharko dute, ezarriko zaizkien isunen kaltetan gabe.

21. Art.- Hondakinak Udalak baimendutako edukiontzietan utzi beharko dira; horiek jartzeko, kale-bidean edukiontzia ipinteko zuzenbideei buruzkoak diren 75. art.an eta hurrengoetan ezarritakoari jarraiki jokatuko da.

22. Art.- Merkatal tegi eta eraikinetako erakustoki, ate, toldo, kortina eta beste edozein kanpo elementuren garbiketa, kale-bidea ez zikintzeko kontu handia izanik egingo da. Jarduera buru dezana izango da horren gaineko erantzunkizuna izango duena.

23. Art.- 1.: Hondakin eta bildukin botagarriak sortarazten dituzten saltzen dituzten artikuluak saltzen dituzten tegien arduradunek (txutxeria-kioskoak, saltoki ibiltariak, estankoak...) beren jarduerak eragindako eremua garbi mantendu behar dute, bai irekitzeko orduan, baita jarduera bukatutakoan ere. Obligazio bera kafetegi, taberna eta antzekoei dgaokienez, beren fatxadaren luzera osoan eta beren jarduerak eragindako azalera osoan ere.

2.: Era berean, beren jardueren ondorioz sortutako hondar edo tresna erabiliezinak kutxa edo ontzi hermetikoki itxietan sartu behar dituzte, eta Udalak adierazitako tokietan utzi.

24. Art.- Zirko, antzoki ibiltari, tiobibo eta, beren ezaugarri bereziengatik, kale-bidea erabiltzen dituzten horrelako beste jarduera batzuk gaudimena utzi behar dute, beren jardueraren ondorioz sor daitezen erantzunkizunei aurre egiteko. Udalak garbiketarik egin behar badu, utzitako gaudimenarekin ordainduko dira gastuak, eta gastuok utzitako gaudimena baino handiagoak badira, falta dena jardueraren titularrek ordaindu beharko dute.

III. 3. Atalburua.- Eraikinen kanpoko alde eta bestelako elementuen garbiketa eta mantenimendua :

25. Art.- 1.: Eraikinen jabeek behar bezalako segurtasun, osasun eta apaintasun baldintzetan mantendu behar dituzte eraikinok.

2.: Debekatuta dago ikusgai jartzea leiho, balkoi, terraza eta abarretan arropa eskegia, garbi edo zikina, edo herriko estetikaren aurkakoa izan dadin beste edozein gauza.

26. Art.- 1.: Eraikin, finka, etxebizitza eta denden jabeek garbi mantendu behar dituzten fatxadak, atarietako zenbaki-errotuluak, sarrerak, eskailerak eta, orokorrean, . kale-bidetik ikusten diren etxebizitzetako alde guztiak.

2.: Jabeek garbi mantendu behar dituzte tximiniak, deposituak, argi-patioak, ur eta gas bideraketak, hustubideak, pararraioak, TBko antenak, igogailuak eta eraikinotako beste elementu osagarri guztiak ere.

3.: Aurreko ataletako bete ezean, doakienei hizpidea eman eta gero, Udalak epe bat emango die arduradunei, epe horretan indarrean dauden legeen arabeko beharrezko lan eta jarduketak egin ditzaten.

III. 4. Atalburua.- Jabedun urbanizazio eta orubeen garbiketa eta mantenimendua :

27. Art.- 1.: Finka eta eraikinen jabeek -berdin da eraikintan norbait bizi den ala ez- garbitu eta egoki mantendu behar dituzte jabetza eta erabilera pribatuko urbanizazioen espaloi, galtzada, plaza eta abarrak, baita eraikin horien osagarriak, hala nola antena eta tximiniak, ere.

2.: Agindu horrek etxaldeek osatzen dituzten patioak garbitasun, osasun eta apaintasun aldetik egoki mantentzera derrigortzen du, desinfektazioa eta arratoiak ezabatzea barne.

3.: Udalak kontrolatu eta ikuskatu egingo du aurreko atalean agertzen diren elementuen garbitasun egoera, eta, hala badagokio, garbitzeko eskatu ahal izango die horren erantzunkizuna dutenei.

28. Art.- 1.: Kale-bidearekin mugakide duaden orubeen jabeek hesi finkoak jarri eta hesiok hondakinik gabe eduki behar dituzte, garbitasun, segurtasun eta apaintasuneko baldintza egokietan, orubeen desinfekzioa eta arratoiak ezabatzeko duten obligazioa barne.

2.: Udalak ikuskaketa lanak egin ditzake, eta jabeak, burutzapen agindua jasota (ekainaren 26ko 1/1992 E.D.L.ko 245 art.), bere obligazioa betetzen ez badu, Udalak haren ordeztu burutu ahal izango ditu jabetza publiko edo pribatuen garbiketa lanak, lan horien zenbatekoa lanen gaineko erantzunkizuna duenak ordaindu beharko duelarik, ezar litezkeen isunen kaltetan gabe.

III.5. Atalburua.- Abereak edukitzea kale-bidean:

29. Art.- 1.: Kale -bidean abereak edukitzeara, Ordenantza honetako arauak araupetuta dago, Amorebieta-Etxanoko "Etxean Abereak edukitzeari buruzko Udal Ordenantza"n xedatutakoaren kaltetan gabe.

2.: Jabeak dira, beren jabetzapeko abereek pertsona edo gauzei egin diezazkieten kalteen erantzule, edota abereek kale-bidean sortaraz ditzaten zikinkeriararen erantzule.

3.: Jabea ez dagoenean, abereak egin ditzanaren erantzunkizuna une horretan aberea daraman pertsona izango da.

4.: Abere batek kale-bidea zikintzen duela ikusiz gero, udal-agenteei agintea dute honako honetarako:

-Aberearen jabe do zaindariari, hark egindako kaltea berehala bere onera ekar dezala eskatzeko.

-Dagokion udal sailera eraman arte, abereari joaten ez uzteko.

5.: Etxeko abereek debekatuta dute espaloi, belargune eta herritarrak igaro edo egoteko kale-bideko gainontzeko lekuetan kaka egitea. Abereon jabe do zaindarien gorotzak jaso eta eraman egin beharko dituzte, baita kale-bidea garbitu ere, abereak zikindu badu. Abereen gorotzokin ondorengoa egin daiteke:

-Udalak jaso ohi duen etxeko zabor poltsan sartzea, gainontzeko zaborrekin.

-Poltsa ongi itxietan, berariaz ezarritako edukiontzietara botatzea.

30. Art.- 1.: Herriko jaietan edo beste edozein ekitaldi publikotan parte hartzeko abereak ekartzen badira, udal baimena eskuratu beharko da aurretiaz, eta dagozkion arielak ordaindu edo gaudimena utzi beharko da, abereak direla eta, sortaraz litekeen zikinkeria edo kalteengatik erantzuteko.

2.: Zerbitzuotako langileek abereek utzitako gorotzak batu beharko dituzte, eta ingurunea garbi utziko dute. Udalak, lan horiek egiteagatiko zenbatekoa utzitako gaudimenetik kenduko du, edo lan horiek direla eta sortutako gastuak ordainaraziko ditu.

IV. IDAZPURUA

KALEAN EGIN DAITEZEN JARDUERA PUBLIKOEN OSTEAN HERRIA GARBITZEA.

IV. 1. Atalburua.- Xedapen orokorrak:

31. Art.- Herriaren garbiketa eratzeko, ekitaldi publikoen antolatzaileek jakinarazi egin behar diote Udalari ekitaldia non, nondik-nora izango den eta haren ordutegia.

32. Art.- Ekitaldi publiko baten ondorioz, kale-bideek edo kaleko altzariek kalterik jasaten badute, horren gaineko erantzunkizuna antolatzaileek izango dute, eta egindako kaltea konpontzeko gastuak ordaindu beharko dituzte, ezar lekizkiekeen isunez aparte.

33. Art.- Kartelak, pankartak, banderatxoak jartzea, orriskak banatzea eta Idazpuru honetan araututako beste edozein publizitate jarduera burutzeko, aurretiaz Alkatetzaren udal baimena behar da, eskatu ezean isuna ezar daitekeelarik.

34. Art.- 1.: Publizitate elementuontzako baimena emateak ondorengo obligazioa dakar berarekin batera: arduradunak zikindu diren kale-bideko guneak garbitu egin beharko ditu, era erabili diren publizitate eta bestelako elementu gehigarriak, handik kendu egin beharko ditu ezarritako epe barruan.

2.: Udalak gaudimena uzteko eska diezaioke doakionari, ekitaldia burutzearen ondorioz zikinkeria egongo dela eta, garbiketa-lanak egin beharra aurrikusten bada. Espazioa beterik eta bere ingurunea garbitasun baldintza egokietan badago, itzuli egingo zaio gaudimena utzi duenari; alderantzizko kasuan, gaudimen horretatik hartuko da garbiketa-lanak egiteko beharrezko diru kopurua.

IV.2. Atalburua.- Kale bidean kartelak, pankartak, banderatxoak edo pegatinak jartzea.

35. Art.- 1.: Debehatuta dago Udalak berariaz baimendutako tokietatik kanpo jartzea kartelak edo pegatinak.

2.: Ez da baimenik emango pankartak edo antzerako beste elementu batzuk zuhaitzetan lotzeko.

3.: Debehatuta dago Ordenantza honetan araututako publizitate jarduerak burutzea historiko-artistiko kalifikazioa duten eraikinetan eta asimilagarrietan. Debeku horretatik kanpo geratzen dira eraikinen barruko aldean egin daitezen jarduerari buruzko pankarta edo errotuluak, baita eraikina iraunarazi, konpondu edo garbitzeko lanak aipatzen dituztenak ere.

36. Art.- Udalak baimena emango du publizitatea berak baimendutako tokietan jartzeko, iragarriko diren ekintza edo jarduerak "Herriarentzat interesgarri" izaera badute.

37. Art.- 1.: Pankarta eta banderatxoetan agertuko den propaganda baimen-eskaeran adierazitakoa besterik ez da izango, eta ez da sartuko bestelako publizitaterik.

2.: Pankarta edo banderatxoak jartzeko baimen-eskaeran ondorengoa adierazi beharko da:

a) Edukia eta neurriak

b) Zein tokitan jarriko den

c) Noiz arte egongo den jarrita

d) Arduradunaren konpromezua, pankarta eta banderatxoak jarri izanaren ondorioz kale-bidean edo kaleko egitura elementuetan egin diren kalteak konpontzekoa, eta dagozkion kalteak ordaintzekoa.

e) Jarritakoa kentzeko, arduradunaren konpromezua

38. Art.- Kale-bideko egiturazko elementuei eutsitako pankarta edo banderatxoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Faroletan eutsiz gero, puntu bakar baten lotuko dira.

Debekatuta dago pankarta edo banderatxoak farola artistikoetan jartzea. Babesteko elementu bat jarriko da farola eta euskarriaren artean, metalezko bi elementuek elkar jo ez dezaten.

Pankartak zulatuta egon beharko dira (gutxienez beren azaleraren %25a), haizearen eragina gutxitzeko.

b) Pankartok jartzeko gutxienezko garaiera, punturik baxuenetik neurtuta, 5,5 m.koa izango da galtzada zeharkatzen badu, eta 3 m.koa espaloi, ibilbide eta oinezkoentzako bestelako aldeetan.

39. Art.- Pankarta eta banderatxoak beren arduradunek kendu behar dituzte jartzeko baimena eman zenean adierazitako epea igaro bezain laster. Hala egiten ez bada, udal-zerbitzukoek kenduko dituzte, betetako zerbitzuaren kostuak pankarta-banderatxoaren gaineko erantzunkizuna dutenei egotziz, eta ezar lekiekeen isunaren kaltetan gabe.

40. Art.- Hauteskunde politiko garaian kartelak eta itsaskorrek jartzearena, erabaki espezifiko bidez arautuko da.

IV.3. Atalburua.- Pintadak

41. Art.- 1.: Debekatuta dago kale-bidean pintadak egitea, bai egiturazko elementuetan, bai galtzada, espaloi eta herriko altzarietan, hala nola harresi, horma, estatua, monumentu eta herriko beste edozein kanpo elementutan; debeku honetan ez dira sartzen orubeetako hesi, obrak inguratzen dituzten iste, agerian geratzen diren artekorma eta behin-behingo beste elementu batzutan egin daitezkeen pintada-mural artistikoak. Horrelakoak burutzeko ere, Udalaren baimena eta margotuko den elementuaren jabearen baimena beharko da.

2.: Baimenik gabe egindako pintadak, baimeneko baldintzak betetzen ez dituztenak edo baimenean agertzen den epeko azken lan-egunaren ondokoan kendu ez diren pintadak, kendu edo garbitu egingo dituzte berehala Udaleko Zerbitzuetakoek, lan hori egin izanagatikoa kostua pintadaren egileek ordaindu beharko dutelarik.

IV. 4. Atalburua.- Orriskak edo antzekoak banatzea.

42. Art.- 1. : Debehatuta dago orriska edo antzerako materialak kale-bidean isuri eta botatzea. Debeke horretan ez da sartzen "eskutik-eskura" banatzeko modua.

2.: Dagozkien Udal Zerbitzuek elementu horiek banatu izanaren ondorioz zikindu den herriko aldea garbituko dute; garbiketa-lanarengatik kostua orrisken arduradunei egotziko zaie, ezar dakiekeen isunaren kaltetan gabe.

V. IDAZPURUA

KALE-BIDEAREN GARBIKETA LARRIALDIETAN

V.1. Atalburua.- Xedapen orokorrak:

43. Art.- Elurte, gizarte-arazo eta halabeharrak eragindako beste egoera batzutan ezinezkoa bada zerbitzua betetzea, Udalak jakinarazi egingo du eta herritarrek ez dute hondakinik aterako, ez delako jasoko.

Hala ere, hondakin-jasotzen zerbitzu bat ezarriko da, ezinbesteko gutxienezko zerbitzua, gutxienez astean behin beteko dena.

VI. IDAZPURUA

HIRI-HONDAKIN SOLIDOAK JASOTZEA

VI.1. Atalburua.- Baldintza orokorrak eta zerbitzua betetzeko esparrua

44. Art.- 1.: Hiri hondakin solidoak (etxeetako hondarrak) jasotzeko zerbitzuak, Hondakinen Saikapenari buruzko Atalburuan hiri-hondakin solidotzat jotzen direnak jasotzeaz arduratuko da. Udalak derrigorrez bete behar du zerbitzu hori.

2.: Ordenantza honetan xedatutakoaren arabera, Udalak ez ditu jaso behar Osasun-, Industria- eta Eraiketa-hondakinak.

3.: Hondakin-jasotze zerbitzu honetan ondorengoak sartzen da:

- a. Hondakinak garraiatzea eta horiek jasotze-ibilgailuetan hustutzea.
- b. Hustu eta gero, beren jatorrizko lekuetara eramatea edukinontziak, hala badagokio
- c. Eragiketa horien ondorioz, kale-bidera zerbait isuri bada, isuritako hori jasotzea
- d. Deuseztatuko diren lekura garraiatzea eta bertan uztea hondakinak.

4.: Norbanakoek ezin dute inolako hondakin eta hondarrik jaso eta probetxatzen ibili, aurretiaz Udalaren baimena jaso gabe.

45. Art.- Erakunde batek, ohi ez bezala, hondar solido mordera, baimendutakoa baino gehiago, bota behar badu, hondarrok bere kabuz garraiatzeko baimena eskatu ahal izango du, edo Udalari berak eramateko eskatu ahal izango dio. Bi kasuetan, Udalak, hondarrok deuseztatu edo eraldatzeagatik kargua ordainaraziko dio; bigarren kasuan, horrez gainera, aipaturiko karguari hondakinak deuseztatu edo eraldatzen dituzten zentruetarrainoko garraioagatik kargua ere gehituko dio.

VI.2. Atalburua.- Etxeetako zaborrak jasotzeko zerbitzua:

46. Art.- Etxeetako zaborrak jasotzeko zerbitzua, udalerrri osoan beteko da orohar.

Udal Erakundeak urtero ezarriko du hiri hondakin eta hondarrak jasotzeko zerbitzua emateagatiko arielaren zenbatekoa. Herritarrek, eskainitako zerbitzuagatiko arielak ordainduko dituzte, dagokion Ordenantza Fiskalean horri buruz ezarritakoaren arabera.

Etxeetako hondartzat honako hauek hartzen dira: etxeetako jarduera arruntean sortzen direnak, baita merkatal tegiek sorturikoak ere, hondarron izaera eta kopuruagatik, lehendabizi aipaturikoei asimilagarriak direnean.

47. Art.- 1.: Ongi itxitako ontzietan utzi behar dituzte zaborrak erabiltzaileek. Onartu egiten dira urak deuseztatzen ez dituen paperezko sakuak eta plastikuzko iragazkaitz apurtezinak ere; ez, ordea, PVCzko ontziak.

2.: Ez da baimenik ematen zaborrak ontziratu gabe uzteko, ezta kubo, pakete, kaxa edo antzerakoetan uzteko ere.

3.: Zaborrak behar ez bezala utzi direlako isuri egiten badira, sortarazitako zikinkeraren gaineko erantzunkizuna zaborrak hala utzi dituenak izango du.

4.: Zaborrarekin batera ezin dira utzi hondakin likidoak edo likido bihur daitezkeen hondakinak. Debekatuta dago.

48. Art.- 1.: Debekatuta dago hondakinak bertan beheara uztea: ezarritako toki eta orduetan utzi behar dituzte zaborrak herritarrek. Aginpidedun udal zerbitzuak egutegi bat egingo du, zaborrak zein egunetan eta zer ordutan jasoko diren adieraziz, eta Alkatetzako Bando baten bidez jakinaraziko zaie herritar guztiei zabor-bilketaren egutegi eta ordu hori.

2.: Udalak zabor bilketarako gune bereziak markatzen baditu, herritarrek kontua izan beharko dute beren ibilgailuak bertan ez uzteko, zaborren karga, deskarga eta garraio lanak oztopatuak izan ez daitezen.

3.: Arau-hausleek kendu egin beharko dituzte bertan-behera utzitako zaborrak eta ingurua garbitu ere, ezar lekitzekiekeen isunen kaltetan gabe.

49. Art.- Debekatuta dago zaborrak kale-bidean maneatzea.

50. Art.- Debekatuta dago hondakin solidoak estolderia-saretik botatzea.

51. Art.- Isuna ezarriko zaie honako hauei: zabor-bilketa zerbitzuei zerbitzu mota bakoitzerako ezarritakoaz bestelakoak diren hondakinak ematen dizkietenei; zaborrak lekuz kanpo uzten dituztenei; edota zaborrak kasu bakoitzerako agindutako edukinontziak ez direnetan uzten dituztenei ere.

52. Art.- TXIKIKAKO MERKATARITZari dagokionez, zaborrak ontzi estankoen barruan utziko dira, ongi isten duten tapez estalita. Ontziok merkatal-tegi barruan edukiko dira, ongi itxita eta jakietatik aparte.

53. Art.- Zabor asko sortzen dituzten jardueren kasuan, hala nola arraindegia, supermerkatu, hipermerkatu, jaki-industriak, etab. eta jarduera horien azalera eraikia 300 m² baino gehiagokoa bada, gela ongi aireztatua eduki beharko dute, zaborrak bertan uzteko, eurak bakarrik erabiliko dituzten edukinontzietan. Edukinontzi horiek, Udalak egokitzen jotzen dituen motakoak izango dira, eta kasuan kasu ezarriko diren toki eta orduetan aterako dira kanpora.

VI.3. Atalburua.- Zaborrentzako instalazio finkoak erabiltzea:

54. Art.- Debekatuta dago etxean edo beste edozein eraikin motatan zabor-birringailuak erabiltzea, estolderia sarearekin zuzenean konektaturik badaude.

55. Art.- Hondakin solidoak erretzeko edozein motatako gailua jartzeko, Udalaren baimena behar da.

VI.4. Atalburua.- Zaborrentzako edukinontzien erabilera.

56. Art.- 1.: Edukinontzietan baimendutako hondakinak besterik ez dira sartuko. Ez da bertan utziko ibilgailuen sistema mekanikoa honda lezakeen metalezko ezer, ezta erretzen ari den materialik ere.

2.: Zabor bilketa edukinontzi finkoen bidez burutzen denean, erabiltzaileek zaborrak horien barruan utzi beharko dituzte, debekatuta dagoelarik zaborrak edukinontzien inguruan uztea.

3.: Poltsak edukinontzien barruan utziko dira, arau hauek betez:

- a. Horien edukiera probetxatzea, ahal den neurrian kaxa eta bolumen handiko gauzak apurtu eta tolestuz.
- b. Ezin dira zaborrak zuzenean edukinontzira bota; zaborrak zabor-poltsa-hermetikoki itxietan gordeta botako dira edukinontzietara.
- c. Edukinontziak etxeetan edo merkatal tegietan sortu diren zaborrak botatzeko baino ez da dira erabiliko; ez dira erabiliko likidoak, obratako sastarrak, etab. botatzeko.
- d. Erabili eta gero, tapa itxi egin behar da.

4.: Udal zerbitzuek arduratuko dira edukinontzi publikoak mantendu eta garbitzeaz.

57. Art.- Udaleko zerbitzuek erabakiko dute zenbat edukinontzi eta non jarri, kontutan izanik norbanako, dendari eta elkarteek eman diezazkieten aholku logikoak. Herritarrek ezin dute edukinontzior kokapena aldatu.

58. Art.- Udalak ERABILERA ESKLUSIBOKO edukinontziak eman ahal izango ditu.

59. Art.- BEIRAZko ontziak, horretarako berariaz jarritako edukinontzi berezietan utziko dira, ondorengo baldintzen arabera:

- a. Beirazko ontzi transparenteak, horrelako ontzietarako jarritako edukinontzi berezietan utziko dira.
- b. Beirazko ontzien itxidurak, hala nola tapa, kortxo, tapoi, etab. ez dira bota behar beirazko ontziekin batera. kendu eta zabor bilketa arruntaren bidez desagertaraziko dira.
- c. Edukinontzietan ez da sartu behar bonbila fluoreszenterik edo kristalik, ez baitira material birziklagarriak.
- d. Debekatuta dago edukinontzi berezi horietan beirazko ontziak ez diren bestelako hondakin edo zaborrak botatzea.

VII. IDAZPURUA

HONDAKIN BEREZIAK JASOTZEA

VII. 1. Atalburua.- Xedapen orokorrak

60. Art.- Erabiltzaileek aukeran erabil ditzakete hondakin berezien jasotze-zerbitzu desberdinak.

61. Art.- 1.: Hondakin berezien jasotze-zerbitzuek, Hondakinen Sailkapenari buruzko atalean horrelaxe sailkaturik daudenak jasotzeaz arduratuko dira.

2.: Dagozkion artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera utzi behar dituzte erabiltzaileek hondakin berezi horiek.

62. Art.- Jasotze zerbitzua 44. art.an adierazten diren jarduerak burutzean datza.

VII.2. Atalburua.- Artikulu iraungiak.

63. Art.- ELIKAGAI ETA PRODUKTU IRAUNGIK izan ditzaten dendetako jabeek, udal-zerbitzuetakoekin harremanetan jarriko dira, horiek behar-bezala kentzeko; jabearen erantzunkizuna da produktuok ezabatzea.

VII.3. Atalburua.- Altzari eta tresna erabiltezinak.

64. Art.- ALTZARI EDO TRESNA ERABILTEZINAK bota nahi dituzten norbanakoek, udal zerbitzuekoekin hitz egin behar dute, noiz eta non jasoko dituzten eurekin zehaztuz.

VII.4. Atalburua.- Abereen gorpuak

65. Art.- ABEREEN GORPUAK Udal Zerbitzuetakoek jasoko dituzte, herritarrak hala eskatuz gero. Kobratu egingo da zerbitzu emaketa hori.

VIII. IDAZPURUA

ERITETXE ETA INDUSTRIETAKO HONDAKINAK, ETA HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUAK JASOTZEA

VIII.1. Atalburua.- Xedapen orokorrak

66. Art.- HONDAKIN SANITARIOAK sortzen dituzten zentruetuek eurek arduratuko dira horiei behar bezalako tratamendua emateaz. Zentru bakoitza bera arduratuko da higiene, osasun eta garbitasun gaietaz, lege eta ordenantza aplikagarriak betez eta hondakinon sailkapena, beren arriskuaren arabera, antolatuko ditu.

Horrez gain, aldeztu aurretik tratamendu egokia eman beharko zaie hondakinari, ondoren garraiatu eta zabortege kontrolatuan utzi ahal izateko.

Era berean, aldiro hondakin horien izaera, konposaketa, kopuru, tratamendu mota eta azken norakoari buruzko informazioa eman beharko zaie Udal Zerbitzuei.

67. Art.- HONDAKIN INDUSTRIALAK, sortu dituztenek eurek, edo baimendutako beste batzuk, jaso eta garraiatuko dituzte. Horretarako, hondakinon izaera eta ezaugarriak kontutan izanda, zein tokitan ezabatu edo probetxatuko diren adierazi beharko da.

Hondakin industrialak sortu dituztenek edo dauzkatenek, behar beste neurri hartu behar dituzte hondakinon bolumena ahalik eta gehien txikitzeko, eta beren garraio, ezabaketa edo probetxamendua indarrean dauden xedapenak betez burutuko dela segurtatzeko.

Horrelako hondakinak sortu edo dauzkatenek, eta maneiatu edo garraiatzen dituzten baimendutakoek, hondakin horien jatorri, ezaugarri, kopuru, behin-betiko aurretratamendu sistema eta abarri buruzko argitasunik eskatzen bazaie, Udalari eman egin beharko diote; Udalak eskubidea dauka hondakin horien gaineko ikuskaketa, zaintza eta kontrol jarduketak egiteko.

68. Art.- HONDAKIN TOXIKO ETA ARRISKUTSUAK behar bezala baimendutako hirugarren batzuek jasoko dituzte, maiatzaren 14ko Hondakin Toxiko eta Arriskutsuei buruzko 20/1986 Oinarrizko Legeari jarraiki.

Hondakinok jaso aurretik, pertsona, gauza edo inguruarentzat izan lezaketen arriskua gutxitu edo ezabatze beharrezko tratamendua eman dakiela agin dezake Udalak.

Debekatuta dago hondakin arriskutsuak kale-bidean batzea.

Hondakin arriskutsuak jaso eta garraia ditzaten ibilgailuek errebisio teknikoak pasatu behar dituzte. Udalak ibilgetu egingo ditu segurtasun baldintzak betetzen ez dituzten ibilgailuak eta osasun eta ingurugiroarentzat arriskutsuak izan daitezkeenak.

IX. IDAZPURUA

BESTE HONDAKIN BATZUK

IX.1. Atalburua.- Xedapen orokorrak

69. Art.- Beren izaera, bolumen edo jatorriagatik hiri-hondakinei asimila ezin dakizkien hondakinak, era berezian jaso, garraiatu eta tratatuko dira.

70. Art.- Horrelako hondakinen jabe eta arduradunek, higiene, osasun eta estetika baldintzak errespetatzeko obligazioa dute.

IX.2. Atalburua.- Landare-hondakinak.

71. Art.- Lorategien jabe eta arduradunek beren kabuz jaso eta ezabatu behar dituzte lorategiek sortzen dituzten hondakinak. Horiek ezin dira kale-bidean utzi, eta "a granel" eran mantenduz gero, poltsa edo edukinontzi egokietan utziko dira, inguruaren estetika zainduz.

IX.3. Atalburua.- Solo-hondakinak:

72. Art.- Amorebietako udalerrri barruan soloa dutenek, solo horiek garbi eta estetika jakin bat gorderik mantentzeko obligazioa dute. Ezin dute bertan bidoi, plastiko, txapa, etab. eduki, edo ingurua kaltetu edo degrada dezan bestelako elementurik jarri.

IX.4. Atalburua.- Bertan-behera utzitako ibilgailuak

73. Art.- 42/1975 Legean xedatutakoaren arabera, bertan-behera utzita dauden ibilgailuak hiri-hondakin solidotzat hartzen dira. Udal Zerbitzuek kale-bidean eta espazio publiko libreetan dauden ibilgailuak kendu egingo dituzte bertatik, ibilgailuon kanpo-itxuragatik bertan-behera utzita daudela irudituz gero, eta beti ere indarrean dauden legeetan ezarritako jardupideketak bete ondoren.

Ez dira joko bertan-behera utzitakotzat, epaileak aginduta, eta Udalak horren berri izanda, ibilgetuta dauden ibilgailuak.

Lehen adierazitakoaren arabera, bertan-behera utzitako ibilgailua kaletik kendu eta gorde denean, Udalak horren berri emango dio Ibilgailuen Erregistroan haren jabe dela agertzen denari, Administrazio Publikoen Lege Jaurpideari buruzko Legean eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko Legean agertzen den eran.

Dena dela, ibilgailu edo horietatik geratzen diren hondakinen jabeek ordaindu egin beharko dituzte ibilgailua jaso, garraiatu eta gordetzeagatiko gastuak. Ibilgailuaz arduratuko direla adieraziz gero, gastu horiek aurretiaz ordaindu beharko dituzte.

Ibilgailua borondatez kendu nahi duenak, Udalari idatziz eska diezaioke, ibilgailua jaso eta garraiatzetik sor daitezen gastuak berak ordaindu beharko dituelarik.

IX.5. Atalburua.- Lurrak eta sastarrak.

1. Atala- Baldintza orokorrak eta ezarpen alorra

74. Art.- Ordenantza honetan lur eta sastartzat hondako hauek hartuko dira:

- a. Lur, harri eta eraikuntzan erabiltzen diren antzerako materialak, eta indusketa eta lurreraketetan sorturikoak.
- b. Aurreko horiei asimilagarria den edozein hondakin-material, obra berri bateko lanetarako saldu edo hornitzeko denean izan ezik.

75. Art.- Idazpuru honetan, honako jarduketa hauek arautzen dira:

- a. 74. art.an lur eta eskonbrotzat jotzen diren materialen karga, garraio, bilketa eta isurketa
- b. Horiek jaso eta garraiatzeko, kale-bidean edukinontziak jartzea

76. Art.- Udalaren parte-hartzeak, adierazitako jardueren ondorioz honako hau gerta dadin ebitatzea du helburu:

- a. Herria, eta bereziki kale-bidea, zikindu eta kutxa daitezen.
- b. Material horiek kontrolik gabe edo era desegokian isur daitezen, baimendutako tokietatik kanpo.
- c. Jabetza publikoko lur edo ondasunak behar ez bezala okupa daitezen.
- d. Zoladura eta herriko gainontzeko egiturazko elementuak narria daitezen.

77. Art.- Debekatuta dago edozein hondakin material kale-bidean bertan-behera uztea, biltzea edo isurtzea. Era berean, debekatuta dago, obragunea inguratzen duen babes-hesitik kanpo, kale-bidean, pilotzea eraiketa lanetako materialak, harea, adreiluak, zementua, etab.

Hondakinak kale-bidean utzi behar badira, Udalak baimendutako edukinontzietan utziko dira, ondorengo artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Atala.- Obratan edukinontziak erabiltzea.

78. Art.- Obratarako "edukinontzi" izena ondorengoei ematen zaie: 74. art.an deskribaturiko materialak jasotzeko, eta garraio bereziko ibilgailuetan kargatu eta bertatik deskargatzeko bereziki diseinaturik dauden ontzi normalizatuei.

79. Art.- 1.: Obratarako edukinontziak kale-bidean jartzeko, Udal baimena behar da. Baimen hori, egin nahi diren obrak burutzeko, dagokion udal-baimena lortzearen menpe egongo da.

2.: Languneen barruko aldean edukinontziak jartzeko, berriz, ez da baimenik behar; hala ere, gainontzeko baldintzei dagokienez, Ordenantza honetan xedatutakoa bete beharko da.

3.: Obra eta edukinontzi bakoitzeko baimen bat emango da, Ordenantza Fiskalean ezarritako ariela ordaindu eta gero.

80. Art.- Obratarako edukinontziak baimena jaso dutenek besterik ezin dituzte erabili.

Baimenaren titularrak bere oniritzia ematen ez badu, inork ere ezin izango du ezer bota edukinontzira.

81. Art.- 1.: Obretako edukinontziek, kanpoko aldean eta ondo ikusteko eran, ondorengoa eduki behar dute:

- a. Edukinontziaren gaineko erantzunkizuna duen enpresaren izena eta telefonoa, edo jabearena.
- b. Identifikatzeko eska dakizkiokeen datu guztiak, emandako udal-baimenean agertzen denaren arabera.

2.: Obretako edukinontziak kolore biziz, gauez eta egunez ongi ikusteko moduko kolorez, margotuta egongo dira.

82. Art.- 1.: Edukinontziaren ertzak eta ingurua garbi mantendu beharko da.

2.: Betetzen denean, behar bezala estaliko da, barruan utzita dauden hondakin-materialak kanpora eror ez daitezzen; gainera, edukinontzia betetakoan, handik kendu eta bere ordez hutsik dagoen beste bat jarriko da.

3.: Horrez gain, lanordutegia amaitutakoan, estali egin behar dira edukinontziak derrigorrez.

4.: Obretako edukinontziak beren edukia, osoa edo zati bat, kale-bidera ez erortzeko moduan edo haizeak ez barreiatzeko moduan erabili edo maneatuko dira.

83. Art.- 1.: Obretako edukinontziak jarri eta kentzeko lanak, herritarrei eragozpenik ez sortzeko moduan burutuko dira.

2.: Edukinontzia bere lekutik kentzean, lan-baimenaren titularrak edukinontzi hori egon den kale-bideko azalera ondo garbi utzi beharko du.

84. Art.- Edukinontziak kendu egingo dira kale-bidetik:

- o Lan baimena indarrean dagoen aldia bukatzean.
- o Edozein unetan, Udal Agintaritzak hala egiteko eskatuz gero.
- o Beteta dagoenean, hustu egingo dira; bete den egunean bertan hustu beharko da edukinontzia.

85. Art.- 1.: Edukinontziak, ahal dela, obren eremu itxi barruan kokatuko dira; ezinezkoa bada, galtzadan, espaloidun kalean, zintarri ondoan, alderik luzeena espaloi edo fatxadako lerroarekiko paraleloan jarriko da.

2.: Dena den, edukinontziak jartzean, ondorengo arauak bete beharko dira:

- a. Hondakinak sortuko dituen obraren aurrean edo hortik ahalik eta hurbilen jarriko dira; ez dute etxebizitza edo beste tegi batzutarako sarrera eragotziko, eta oinezko edo ibilgailuen igarotzea ahalik eta gutxien oztopatuko dute.
- b. Gidarien ikusgaitasuna ez eragotzeko moduan kokatuko dira; honekin kontu handia izan beharko da bidegurutzeetan, eta Zirkulazio Kodeak estazionatzeko ezarrita dituen gutxienezko tartek gordeko dira.

- c. Ezin dira kokatu oinezkoentzako igarobideetan, beren aurrean, ezta bado eta estazionatzeko eta aparkatzeko toki erreserbatuetan ere, erreserba horiek obra bererako eskatu direnean izan ezik; estazionatzea debekatuta dagoen tokietan ere ezin dira edukinontziak jri.
- d. Inoiz ere ez dira jarriko, osorik edo haien zati bat, zerbitzu publikoen sarrera-tapen gainean, suteetarako hidrante eta zuhaitzen alkorkeen gainean, ezta, orokorrean, hirigintza-elementuen gainean ere, baldintza normaletan edo larrialdi batean beren erabilera oztopatua izan badaiteke.
- e. Gehienezko karga kopurua, edukinontziaren albo bateko goiko errasantea izango da; debekatu egiten da, beren-beregi, edukinontzioi albo-gehigarriak jartzea.
- f. Hondakin-edukinontziak galtzadan kokaturik badaude, espaloien zintarritik 0,20 m. tara jarriko dira, azalerako urak hustubiderik hurbileneraino joan eta heldu daitezen ez eragozteko moduan.

86. Art.- Edukinontziak kale-bidean gauez ere egon behar badira, argi-seinale edo seinale isladatzaileak eduki beharko dituzte, ongi balizaturik egon daitezen.

87. Art.- 1.: Baimenaren titularrak honen gaineko erantzunkizuna izango du:

- a. Edukinontziek kale-bideko edozein elementuri egin diezaioten kalteen gainekoa; zeozer gertatuz gero, udal-zerbitzuei jakinarazi beharko zaie.
- b. Hirugarren batzuei egin dakienaren gainekoa.

2.: Arau horiek betetzen ez badira, indargabetu egingo da emandako baimena, eta Udalak kendu ere egin ahal izango du edukinontzia, horren gaineko kargua gehi ezar lekiokkeen isuna, eskatzaileak ordaindu beharko dituelarik.

3. Atala.- Lur eta sastarren libramendu eta isuriketa.

88. Art.- Atalburu honetan arautzen den gaian, Udalaren parte-hartzeak hauxe izango du helburu: lur eta sastarren isuriketa kontrolik gabea edo era desegokian egina ebitatzea eta baimendutakoak ez diren lekuetan isuriketak egin daitezen ebitatzea ere.

Norbanakoek alor honetan egin ditzaten jarduketak zorrotz eta zintzo kontrolatuko direla bermatzeko, ingurugiroari buruzko lege-mekanismoez hornituko da Udala.

Udalak ahaleginak egingo ditu lur eta sastarren isuriketa toki behar bezala kontrolatuetan, herriari komeni zaion guneetan eta espazioen errekupeazioa ahalbideratzeko moduan egin daitezen.

89. Art.- 1.: Herritarrek, lur eta sastarrak kentzea, honelaxe egingo dute:

- a. 2 m³ko bolumena baino txikiagoa izan, eta sakuetan sartuta doazenak: Udalak berariaz ezarritako instalazioetan.
- b. Sastarren bolumena 2 m³ baino gehiago denean:
 - o Jaso eta isurtegi baimendu batera garraiatzeko ardura osorik hartzea.
 - o Behar bezala baimendutako hirugarren batzuei kontratatzea doakionak bakarrik erabiltzeko obra-edukinontziak.

90. Art.- 1.: Debekatuta dago:

- Obretako edukinontzietan honelakoxe materialak izan ditzaten hondakinak uztea: material sukoi, lehergarri, toxiko, kaltegarri eta arriskutsuak, ustel daitezkeenak edo

hatsa sortaraz ditzaketenak, eta kale-bidearen erabiltzaileei eragozpenak sortaraz diezazkieketenak. Era berean, debekatuta dago altzari, tresna erabiltezin edo antzerako beste edozein hondakin-material uztea obra edukinontziotan.

- Jabetza publiko edo pribatuko lurretan isuriketak egitea, Udalak hori egiteko berariazko baimenik eman ez badu.

2.: Aurreko atalean xedatutakoa betetzen ez dutenei isuna ezarriko zaie.

4. Atala.- Lur eta sastarren garraioa.

91. Art.- 1.: Lur eta sastarren garraioa kale-bidetik, alde zuzenetik ezarritako orduetan eta ibilbideetatik egingo da.

2.: Ordenantza honetako arauak gainontzeko arau aplikagarriak betetzaren kaltetan gabe xedatu dira.

92. Art.- 1.: Lur eta sastarrak garraia ditzatenek kendu egin beharko dituzte toki baimenik gabekoetan isuritakoak, edozein momentutan, Udal Agintaritzak hala egiteko eskatuz gero.

93. Art.- Dagozkion neurriak hartuko dira lurra eta sastarrak garraiatzerakoan, kale-bidea zikin dadin ebitatzeko.

X. IDAZPURUA

ZABORREN ARTEAN DAUDEN HONDAKIN-MATERIALEN

BILKETA SELEKTIBOA ETA PROBETXAMENDUA

X.1. Atalburua.- Xedapen orokorrak

94. Art.- Dagozkien zerbitzuek jaso arte, kale-bidean utzitako hondar eta hondakinak, Udalaren jabetzapeko izaera hartuko dute, halaxe izan behar dela baitago xedatuta Hiri Hondakin eta Hondar Solidoen Jasotze eta Tratamenduari buruzkoa den 42/1975 Legean.

95. Art.- Debeekatuta dago jasotze-zerbitzuek jaso ditzaten, kale-bidean utzita dauden, hondakin-materialak hautatu, sailkatu edo bereizten ibiltzea.

96. Art.- Ordenantza honetan ondorengoa hartuko da bilketa selektibotzat: Udaleko bilketa-zerbitzuek zuzenean edo Udalak aurretiaz baimendutako hirugarrenek buru ditzaten hiri-hondakin solidoen osagaikako bilketa.

Besteak beste, honexelako bilketa selektiboko zerbitzuak ezar ditzake Udalak:

- Altzari, tresna eta traste zaharren bilketa
- Beira-bilketa selektiboa
- Paper eta kartoi-bilketa selektiboa
- Pilen bilketa selektiboa

Pilen bilketari dagokionez, erabiltzaileek ezar daitezkeen arauak jarraiki utzi beharko dituzte pilak.

97. Art.- Bilketa selektiboak Udal Zerbitzuek eurek egin ditzakete zuzenean, edo Udalak baimendutako hirugarren batzuek.

98. Art.- Udalak, bilketa selektiboaren alorrean, ongi deritzen esperientzia eta jarduera guztiak burutu ahal izango ditu, horretarako beharrezko aldaketak egingo dituelarik udal zerbitzuetan.

99. Art.- Udal Erakundeak udal zerbitzuen iritziz Udalarentzat onuragarri izan litezkeen hondakinak jasotzeko ekimen pribatu edo publikoen alde egingo du, eta bere agintepideek ematen dizkieten ahalmenez baliaturik, hondakinen bilketa selektiboko kanpainak bultzatzeko laguntza, diru-laguntza erregimenak ezarri ahal izango ditu. Hondakinen bilketaz bilatzen dena norbera aberastea bada, hori ez da inola ere bilketa selektibotzat hartuko.

100. Art.- 1.: Bilketa selektiboak egiteko jarritako edukinontziak, zerbitzu horretarako besterik ez dira erabiliko. Debehatuta dago edukinontzi horietan kasuan kasuko hondakin mota jakina utzi beharrean, bestelako batzuk uztea.

2.: Debehatuta dago edukinontziotan utzitako gauza eta hondakinak handik eramatea.

101. Art.- Bilketa selektiboko zerbitzu-mota eta baldintzei buruzko informazioa zabaldu egingo dute udal zerbitzuek herritarren artean.

XI. IDAZPURUA

HONDAKIN SOLIDOEN TRATAMENTU ETA EZABAKETA

XI.1. Atalburua.- Baldintza orokorrak eta ezarpen eremua

102. Art.- Tratagarri eta ezabagarri dira, teknikoki hondakin solidoen kudeaketa alorrean sartzen diren material mota guztiak.

103. Art.- 1.: Arau hauek izan ditzaketen ondorioei begira, honako hau joko da tratamendutzat: administrazioaren tutoretzapean hondakin-materialei ezar dakien prozedura multzoa, prozeduron helburua hondakinok gero lehengai edo gai erdilandu gisa edota energia indar moduan erabiltzea izango delarik.

2.: Horrez gain, beste hau ere joko da tratamendutzat: pertsona, gauza, naturako errekurtsio edo ingurugiroa kalte gabe hondakin-materialak naturan isuri ahal izan daitezen, material horiei egin dakizkien jarduketa guztiak.

3.: Ezabaketatzat joko da hondakinok era kontrolatuan lurtean uztea edo isurtzea, edota prozedura termikoen bidez horiek guztiz edo alde batez deuseztatzea, energiarako probetxatu gabe.

4.: Kudeaketatzat honako hau hartuko da: hondakinok beren ezaugarrien arabera zertarakorik egokienean ematera bideratutako jarduketa multzoa, gizakien osasuna, naturako errekurtsioak eta ingurugiroa babestuz.

104. Art.- 1.: Azaroaren 29ko 42/1975 Legean xedatutakoaren arabera, Udalak hondakin-ekoizle edo jabeei ondorengoa eskatu ahal izango die: tratamendu edo ezabaketa zerbitzua pertsona eta ingurugiroaren segurtasuna bermatzeko moduko baldintzetan burutu daitezen utz ditzatela hondakinok udal ekipamenduetan.

2.: Hondakinen tratamendu eta ezabaketarako udal-ekipamenduek onartu ez eta atzera bota ahal izango dituzte, bere izaera edo aurkezpen-eragatik, jasotzeko ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten hondakin-materialak.

3.: Hondakin solidoak ezabatzeko instalazioak, dagozkien toki, autonomia-elkarte, nazio edo nazioarteko Legeen menpe egongo dira, baita ingurua zaintzeko ezar daitezen legeen menpe ere.

105. Art.- Debekatuta dago edonolako hondakinak kanpoan edo berariazko baimenik ez daukaten instalazioetan kontrolik gabe erretzea.

106. Art.- 1.: Udalak hondakinen tratamendu zerbitzua eskain diezaike erakunde publiko nahiz pribatuei, etengabe edo noizbehinka.

2.: Zerbitzu hori noizbehinka jasotzeko, erabiltzaileak eskaera-idazkia aurkeztu beharko die udal-zerbitzuei; horiek, eskaera ordenaren arabera erantzungo diote eskatzaileari. Lehentasuna emango zaie osasun-publikoa edo ingurugiroari begira arriskua sor ditzaketen kasuei.

3.: Hondakin ekoizle edo jabeek, hondakinok udal-zerbitzuei edo behar-bezala baimendutako hirugarren batzuei ematen dizkietenean izan ezik, beharrezko neurriak hartu beharko dituzte hondakinok segurtasun osoko baldintzetan tratatu edo ezabatzen direla ziur egoteko.

XI.3. Atalburua.- Norbanakoek hondakinak ezabatzea

108. Art.- Beren hondakinak ezabatu nahi dituzten norbanako edo erakundeek, dagozkien jarduera-baimena jaso beharko dute. Horrelako kasuetan, bakoitzak bere ezabaketa-instalazioak erabil ditzala agindu ahal izango du Udalak.

109. Art.- Hondakin solidoen tratamendu eta ezabaketa jarduerak burutzeko, Udal baimena behar da. Baimenik gabekoak legez-kanpokotzat joko dira, eta beraz berehala itxi ahal izango dira, ezar dakizkiekeen isunen kaltetan gabe, eta egindakoagatik sorturiko erantzunkizun-erreklamazioaren kaltetan gabe.

110. Art.- Hondakinen tratamendu eta ezabaketarako instalazioek udal ikusketa teknikoa jasango dute, edozein momentutan, Udal Agintaritzak aginduz gero. Indarrean dauden legeetatik eratorritako ingurugiro teknika bermeen arabera ustiatu ez dauden instalazioak baimen gabekotzat joko dira eta itxi egingo dira berehala, dagozkien erantzunkizunak ere eskatuko zaizkielarik.

111. Art.- Debekatuta dago hondakinak honela ezabatzea: Udalak aurretiaz baimenik ez duen lurretan utziz.

XII. IDAZPURUA

ARAU-HAUSTEAK ETA ISUN TAULA

XII.1. Atalburua.- Prozedura

112. Art.- Zigoritze-ahalmena, 1993ko abuztuaren 4ko 1398 Errege Dekretuan ezarritako prozedurari jarraiki gauzatuko da.

113. Art.- Zigor prozedurei beti emango zaie hasiera agintez, hau da, aginpidedun sailaren erabaki bidez edo berenezko ekimenez, edota goi agindu, beste sail batzuren eskaera arrazoitu edo salaketaren baten ondorioz ere. Udal Administrazioak gerta daitezen arau-hauste eta irregularitasunak ikuskatu eta egiaztatuko ditu. Ordenantza honetan ezarritakoa ez dela bete egiaztatuta, horretan dabilen herri-lanariak salaketa aurkeztuko du. Eta egindako jarduketak ikusirik, Udal Bulego Teknikoak dagozkion neurri zuzentzaileak ezarriko ditu.

114. Art.- Ordenantza honetan xedatutakoa, egintzaz edo ez egitez, betetzen ez bada, horren gaineko erantzunkizuna egileek eurek edo, horiek gaitasun gabeak badira, horiek zaintzeko ardura dutenek izango dute.

Zehatzago esanda, IV. idazpuruan xedatutakoa hausten duten ekintzen gaineko erantzunkizuna, aurretiaz baimena jaso gabe edo idazpuru horretan ezarritako baldintzak hautsita pankarta edo kartela jarri duenak/dutenek edo pintada egin dutenek izango dute. Horien ordeko erantzunkizuna izango dute aurreko atalean aipaturiko baldintzetan pintadak egin edo kartel edota pankartak jartzera eragin dutenek, egindako propaganda eta publizitatetik onura ateratzen dutenek horietatik direlako.

115. Art.- Ordenantza hau hautsi egiten bada, jakinaren gainean jarri beharko dute Udala norbanako eta lege-nortasundun guztiek.

116. Art.- Honako hauek dira arau-haustek:

Arinak:

- a. Artikulu honetako ondorengo ataletan adierazita ez dauden Kale-Garbiketari buruzko Ordenantza honen arau-hauste txikiak.
- b. Kale-Garbiketari buruzko 14 eta 15. art.ak haustea, larritzat jotzen diren atalei dagokienez izan ezik, baita 22.a haustea ere.
- c. Publizitate jardueri buruzkoa den 42. art. ez betetzea
- d. Hiri Hondakin Solidoak jasotzeari buruzko 47. eta 48. art.ak ez betetzea
- e. Obretan edukinontziak erabiltzeari buruzko 82, 83 eta 85. art.ak ez betetzea.
- f. Sastarren garraioari buruzkoa den 92. art. haustea.

Larriak:

- a. Kale-garbitasunari buruzkoak diren 15-7, 15-9, 15-10, 15-13 eta 15-14 art.ak ez betetzea.
- b. Publizitate Jardueri buruzkoak diren 35, 39 eta 41. art.ak ez betetzea
- c. Hondakin Solidoak bildu eta jasotzeari buruzkoak diren 18.2 eta 73. art.ak haustea
- d. Lur eta Sastarrak jaso, garraiatu eta isurtzeari buruzkoa den 77. art. ez betetzea
- e. Edukinontziak jartzeari buruzkoa den 79. art. ez betetzea
- f. Behin baino gehiagotan gertatzen den arau-hauste arina

Oso larriak:

- a. 31. eta 89. art.ak ez betetzea, horren ondorioz kalte handiak sortzen badira. Espedientean behar bezala egiaztatuta egon beharko da hori.
- b. Arau-haustek kalifikatzeko, eta zigorrak ezartzeko orduan, kontutan hartuko da ea nahita izan den, nolakoa izan den egindako arau-haustea, arriskua sortu duen, ondoriak, ea lehenago edo gehiagotan ere gertatu den eta egon daitezen beste baldintza aringarri edo gehigarri batzuk.
- c. Ordenantza honetan ezarritakoaren aurkako egintza bakoitza, aparteko egintzat hartuko da zigorrak ezartzeko orduan.

117. Art.- Zigorrak ezartzea Alkatetzari dagokionean, prozedura honi jarraiki jokatuko da:

- a. Arau hauste arinengatiko zigorrak ezarri aurretik, doakionarekin hitz egin beharko da. Dagokion Zerbitzuak aurkezturiko salaketa jaso ondoren, lehenabizi doakiona deitu eta harekin hitz egingo da, eta dagokion zigorra ezarriko zaio, Alkatetzako Erabaki bidez, zeina Administrazioarekiko Auzibide errekurtsio bidez errekurritu ahal izango den.
- b. Arau hauste larriengatiko zigorrak ezartzeko, espedientea egin beharko da. Aurkezturiko salaketaren araberrako erabaki-proposamen batez emango zaio hasiera espedienteari;

horren berri emango zaie interesatutei, hamar eguneko epean beren buruak defendatzeko egoki deritzena adieraz dezaten. Epe hori igarota, Alkateak bere erabakia emango du.

- c. Arau hauste oso larriengatiko zigorrak Administrazio Publikoen Lege Jaurpide eta Administrazio Prozedura Arruntari buruzko Legean, edo jarduera nekagarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuen Araudian, dagokionean, agertzen den prozedurri jarraiki ezarriko dira.

118. Art.- 1.: Arau hausteak Ordenantza honen arabera zigortuko dira, beste lege batzuk (hala nola hiri hondakin solido eta hondarrak jaso eta tratatzeari buruzko legea; jarduera nekagarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko araudia, hirigintza diziplinari buruzko araudia; eta ezar daitezkeen sektorekako beste Xedapen batzuk) aplikatuz gero, isun handiagorik ezartzea ez dagokionean.

2.: Ezarriko diren isunen zenbatekoa hauxe izango da:

- a. Arinak: 5.000.- pta.ra arteko isunak
- b. Larriak: 5.000 10.000 pta. bitarteko isunak
- c. Oso larriak; lege xedapen aplikagarrien arabera ezar daitezkeen isunak jarriko dira.

3.: Ezarritako isunez apartekoa da Udalak doakionaren orde egin ditzan garbiketa-lanengatik ordaindu beharrekoa, halaxe dela baitago xedatuta Ordenantza honetako 4.2 art.an.

119. Art.- Ordenantza honetako zerbait ez betetzeagatik ezarritako isuna edo ordeko burutzapenarengatiko kosteak borondatez ordaintzen ez badira, premiabidezko administrazio-prozedurari ekingo zaio.

Aurreko ahapaldian xedatutakoaren ondorioetarako, arau-haustea Udaletxean ordezkatuta dagoen alderdi politikoren batek egin badu, Udalak alderdi horri ordaintzen dion diruaz dagokiona egiteratzeko agindu ahal izango da hertsitze erabakian.

ERABAKI GEHIGARRIA:

Ordenantza honetan aurrikusita ez dagoenari dagokionez, hauexek izango dira irizpide: hiriko hondakin eta hondar solidoak jaso eta tratatzeari buruzko 42/75 Legea; abenduaren 30eko 2414/61 Dekretu bidez onarturiko jarduera nekagarri, osasunkaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko araudia; eta ekainaren 23ko 2187/78 Errege Dekretu bidez onarturiko Hirigintza Diziplinari buruzko araudia.

AZKEN ERABAKIA:

Apirilaren 20ko 7/85 Legeko 49. art.an aurrikusitako prozedurari jarraiki onartu ondoren, azaroaren 28ko 2568/86 E.D.ko 196.2 art.an xedatutakoa betetzeko, Ordenantzaren testu osoa B.A.O.n argitaratu ondoko 15. egunean hartuko du indarra Ordenantza honek.

Amorebieta-Etxanon, 1995eko abuztuaren 29an.

JARDUNEANGO ALKATEAK

Izp.: Kepa Odriozola Azula jaunak